

**HITZARMENA BILBOKO UDALAK  
HARROBIA ELKARTEARI EMATEN DION  
DIRULAGUNTZA IZENDUNA  
BIDERATZEKO**

**BILDUTAKOAK**

ALDE BATETIK, Gonzalo Olabarria Villota jauna, Bilboko Udalaren Kultura eta Gobernantza Saileko zinegotzi ordezkaria, udal horren izenean eta ordezkari modura. Helbidea: Ernesto Erkoreka plaza 1, 48007 Bilbao; IFK: P-4802400-D.

BESTETIK, Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria andrea (NAN: xxxxxxxx), HARROBIA elkartearen izenean, erakunde horretako zuzendari nagusia baita. Helbidea: Langaran, 3 Bilbao; IFK: G95672978.

**ADIERAZTEN DUTE:**

HARROBIA entitateak, besteak beste, arte eszenikoen sustapenaren munduan lan egiten du.

Elkarreak bere lan-eremua sektore kultural batean du, eta Bilboko Udalak sektore hori babestu eta sustatu nahi du berezko programen bidez, baina bai gure urian sektore hori bultzatzen duten giza-ekimenei laguntza emanez ere, Kulturaren 2023-2033 Plan Estrategikoa ere betetzen dela kontuan hartuta.

Helburu horiek lortzeko, entitateak ekoizpen eszeniko profesionalen berrikuntza zentro bat kudeatzen du, Langaran kaleko 3.ean (Otxarkoagako eliza zena). Zentro horrek lokalak, baliabideak eta aholkularitza eskaintzen dizkie sektore eszeniko profesionalari eta alor horretan sortzen diren konpainiei.

Udalaren asmoak hauek dira:

- Jarduera hau sendotzea. Horrela, hiriak arte eszenikoetan espezializatutako zentro bat izango du, arte eszenikoak sortu eta zabaltzeko egokia;
- Zentroak tarifak merkatzea, arte eszenikoen sektoreak instalazioak erabili ahal izateko.

**CONVENIO POR EL QUE SE CANALIZA LA  
SUBVENCION NOMINATIVA QUE EL  
AYUNTAMIENTO DE BILBAO CONCEDE A  
LA ASOCIACIÓN HARROBIA**

**REUNIDOS**

DE UNA PARTE, D. Gonzalo Olabarria Villota, Concejal Delegado del Área de Cultura y Gobernanza del Ayuntamiento de Bilbao, actuando en nombre y representación de este Ayuntamiento, que tiene su domicilio en Plaza Ernesto Erkoreka, nº 1, (48007 Bilbao) y NIF P-4802400-D.

DE OTRA PARTE, Dña. Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria, con DNI nº xxxxxxxxxx, en calidad de presidente de la Asociación HARROBIA, entidad con domicilio en Bilbao, calle Langaran nº 3 y CIF: G95672978.

**EXPONEN**

Que HARROBIA es una entidad que, entre otros campos, trabaja en torno al mundo de la promoción de las artes escénicas.

Que el ámbito de trabajo de la Asociación se desarrolla en un sector cultural que el Ayuntamiento de Bilbao quiere respaldar y potenciar, mediante programas propios, pero también apoyando las iniciativas sociales que impulsan este sector en nuestro Municipio, teniendo en cuenta también el cumplimiento del Plan Estratégico de Cultura 2023-2033.

Que para estos fines la entidad gestiona el Centro de Innovación en Producción Escénica Profesional (CIPEP) sito en el nº 3 de la calle Langaran (antigua Iglesia de Otxarkoaga), dedicado a facilitar locales, recursos, y asesoramiento al sector escénico profesional y a las compañías emergentes

Que es voluntad del Ayuntamiento:

- Que esta actividad se consolide, de forma que contribuya a dotar a la ciudad de un Centro especializado en las artes escénicas, adecuado para la creación y la difusión de las mismas;
- Que el centro rebaje sus tarifas actuales, de forma que se facilite el uso de las instalaciones por el sector escénico.

Egokia da HARROBIA elkarte eta Bilboko Udalaren arteko esparru aproposa edukitzea, helburuak betetzen direla eta bere jarduera normaltasunez betetzen duela bermatzeko.

## KLAUSULAK

**BAT.- HELBURUA.**- Hitzarmen honen helburua da Bilboko Udalak HARROBIA elkarteari ematen dion dirulaguntza izenduna bideratzea, entitate horrek bere urteko jarduna garatu dezan 2026an.

Diruz lagundutako entitateak konpromisoa hartzen du arte eszenikoen sektoreko konpainia eta profesionaleri kobratzeko, urtebetez, proiektuan ezarritako tarifak (proiektu hori hitzarmenaren I. eranskinean dago).

Diruz lagundutako Programaren Gutxieneko Aurrekontua Eranskin horretan dago eta 20.600 eurokoa da. Diruz lagundu daitekeen gastutzat du HARROBIAk ordaindutako kenkaririk gabeko BEZaren ehunekoak. Ehuneko hori, hasiera batean, gutxi gorabeherakoa izango da; hala ere, hori ez da eragozpena izango 2027ko urtarrilean zehazteko, HARROBIAk 2026ko laugarren hiruhilekoko BEZaren aitortpen bateratua egiten duenean.

Hitzarmen honetako I. eranskinak hitzarmenaren atalak dira eta harekin batera sinatu beharko dira.

**BI.- UDALAREN EKARPENA.**- Bilboko Udalak konpromisoa hartu du guztira HOGEI MILA EURO (20.000,00 €), 2026 11010 33410 4819900 partidaren kontura eta, elkarteari diru-laguntza izenduna emateko, 2026. urtean bere jarduera garatzen laguntzeko.

Aipatutako ekarpena bateragarria izango da nazioko, Europar Batasuneko zein nazioarteko organismoetako beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste diru-laguntzekin, laguntzekin, diru-sarrerekin edota baliabideekin. Hala ere, laguntzen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan diruz lagunduko den ekintzaren kostua baino, ez banaka hartuta ez beste laguntza, sarrera edo baliabideekin batuta. Handiagoa izanez gero, itzuli egin beharko da gainetikoa. Jasotzaileak nahitaez jakinarazi beharko du beste laguntzarik jasotzen badu helburu bererako.

Que resulta conveniente disponer de un marco idóneo entre la Asociación HARROBIA y el Ayuntamiento de Bilbao para que se pueda asegurar el cumplimiento de los fines y el desarrollo normal de su actividad.

## CLÁUSULAS

**PRIMERA. - OBJETO.** - El objeto del presente Convenio es canalizar la subvención nominativa que el Ayuntamiento de Bilbao concede a la Asociación HARROBIA para que la entidad pueda desarrollar su actividad anual a lo largo del ejercicio 2026.

La entidad subvencionada se compromete a cobrar a las compañías y profesionales del sector escénico, durante un año, las tarifas que se establecen en el proyecto incluido como Anexo I del Convenio. El Presupuesto del Programa subvencionado, tal como figura en el referido Anexo, asciende a 20.600,00 €. Incluye, como gasto subvencionable el porcentaje del IVA soportado por HARROBIA que no sea objeto de deducción por la entidad. Este porcentaje será inicialmente estimativo, sin perjuicio de su determinación posterior en enero de 2027 cuando HARROBIA presente la declaración conjunta por IVA del cuarto trimestre del año 2026.

El Anexo I que se señala en este Convenio forma parte de él, por lo que deberán firmarse junto a él.

**SEGUNDA. - APORTACIÓN MUNICIPAL.** - El Ayuntamiento de Bilbao se compromete a aportar la cantidad total de VEINTE MIL EUROS (20.000,00 €), con cargo a la partida 2026 11010 33410 4819900, como subvención nominativa a la asociación como contribución al desarrollo de su actividad en el año 2026.

La referida aportación será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales. No obstante, el importe de las subvenciones en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada, en cuyo caso daría lugar al reintegro correspondiente. La beneficiaria deberá obligatoriamente comunicar la

Zigor Kodearen 308. artikuluaaren arabera, hau da arau-hauste penala:

1. Administrazio publikoengandik 10.000 euro baino gehiagoko diru-laguntzak edo laguntzak eskuratzea, haiek lortzeko betekizunak faltsutuz edo haiek lortzea eragotziko luketen baldintzak ezkutatzuz.

2. Administrazio publikoen funtsekin osorik edo zati batean ordaindutako jarduera bat egitean, funts horietatik 10.000 euro baino gehiago erabiltzea diru-laguntza edo laguntza eman zen helburuak ez diren beste batzuetarako.

**HIRU.- DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK.-** Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerarekin zalantzarik gabe bat datozenak, behar-beharrezkoak direnak eta hitzarmenean ezarritako epean egiten direnak.

Diruz lagundu daitekeen gastua Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa denean, kontratatu aurretik, onuradunak zenbait hornitzailearen hiru eskaintza eskatu beharko ditu gutxienez, salbu eta ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago holakorik egin, eskaini edo hornitu dezakeen erakunde nahikorik edo gastua diru-laguntza eskatu aurretik egin bada. Justifikazioan edota diru-laguntzaren eskarian erantsi behar diren eskaintzen artean aukeratzeko eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan. Ekonomia aldetik merkeena ez den eskaintza aukeratzen denean, aukeraketa hori berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

**LAU.- ORDAINKETA.-** Diru-zenbateko hori aldeztu aurretik ordainduko da, hitzarmen hau sinatu ondoren.

Ordainketa aldeztu aurretikoa izan daiteke eta erakunde onuradunari ez zaio bermea ezartzea eskatuko.

existencia de otras ayudas recibidas para la misma finalidad.

Se recuerda que constituye infracción penal, según el artículo 308 del Código Penal:

1.- La obtención de subvenciones o ayudas de las Administraciones Públicas por importe superior a 10.000 euros falseando las condiciones requeridas para su concesión u ocultando las que hubiesen impedido.

2.- En el desarrollo de una actividad sufragada total o parcialmente con fondos de las Administraciones Públicas, la aplicación de los mismos, en una cantidad superior a 10.000 euros, a fines distintos de aquéllos para los que la subvención o ayuda fue concedida.

**TERCERA. - GASTOS SUBVENCIONABLES.** - Se considerarán gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada, resulten estrictamente necesarios y se realicen en el plazo establecido en el convenio.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor, la entidad beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores previamente a la contratación de los mismos, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

**CUARTA. - ABONO.** - El abono de esa cantidad se producirá por anticipado una vez firmado el presente convenio.

Para efectuar el abono, que podrá ser anticipado, no se exigirá a la entidad beneficiaria la constitución de una garantía.

**BOST.- KOORDINAZIOA ETA INFORMAZIOA.-** Kultura eta Gobernantza Sailak eta HARROBIA elkarteak antolatzen dituzten kultur ekintzetan, programazioak koordinatzeko ahalegina egingo dute eta bakoitzaren kultur jardueri buruzko informazioa emango diote beste aldeari.

HARROBIA elkarteak informazioa eta datuak bidaliko dizkio Kultura eta Gobernantza Sailari, azken horrek diruz lagundutako programaren oihartzuna ebaluatu ahal izan dezan. Horretarako, jardueraren memorian emaitzen adierazleak, prentsa-txostenak eta abarrak aurkeztuko ditu.

Adierazleak datu hauek erakutsiko dituzte, gutxienez:

- Bilbokoak diren edo nagusiki euren jarduera Bilbon gauzatzen duten eta HARROBIAk eskainitako instalazioak eta zerbitzuak erabiltzeko hobariak jasotzen dituzten konpainien kopurua.
- Hobariak jasotzen dituzten konpainien antzerki emanaldietara joan diren pertsonen kopurua.

**SEI.- BESTE BETEBEHAR BATZUK.-** Aurreko klausulan adierazitako betebeharraz gainera, aldeek beste hauek izango dituzte:

a) Hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren jardueren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen publizitate- eta zabalkuntza-ekintza guztietan Bilboko Udalaren parte-hartzea adieraziko du, kasu bakoitzean egoki den erara, eta beti ere udalaren logoa erabilita.

b) Hitzarmen honen bidez diruz laguntzen diren jardueren berri emateko erakunde onuradunak egiten dituen publizitate- eta zabalkuntza-ekintza guztietan Bilboko Udalaren parte-hartzea adieraziko du, kasu bakoitzean egoki den erara, eta beti ere udalaren logoa erabilita.

c) Une bakoitzean euskeraren erabilera normalizatzeko indarrean dagoen araudia beteko dela bermatuko da.

d) Diruz lagundutako programaren barruan antolatzen diren jardueretan udalaren ordezkariak sartzen utziko zaie.

**QUINTA. - COORDINACIÓN E INFORMACIÓN.** - El Área de Cultura y Gobernanza y la Asociación HARROBIA intentarán coordinar sus programaciones en las actividades culturales que organicen, facilitando información sobre sus respectivas actividades culturales.

La Asociación HARROBIA se compromete a remitir al Área de Cultura y Gobernanza las informaciones y datos para evaluar la repercusión del programa subvencionado, mediante la aportación en la memoria de la actividad de indicadores de resultados, dossiers de prensa, ...

Los indicadores mostrarán, al menos, los siguientes datos:

- Número de compañías bilbaínas, o que desarrollen su actividad principalmente en Bilbao, que se benefician de las bonificaciones en el uso de las instalaciones y servicios prestados por HARROBIA.
- Número de personas asistentes a las representaciones teatrales de las compañías beneficiadas por la bonificación.

**SEXTA. - OTRAS OBLIGACIONES.** - Además de la obligación señalada en la cláusula anterior, se atenderá a lo siguiente:

a) En los actos de publicidad y difusión de las actividades subvencionadas que son objeto del presente convenio por la entidad beneficiaria se indicará la participación del Ayuntamiento de Bilbao en la forma adecuada a aquella, con la inclusión en todo caso del logo municipal.

b) Por la entidad beneficiaria se asegurará la presencia de los representantes del Ayuntamiento de Bilbao (Área de Cultura y Gobernanza) en los actos protocolarios, inauguraciones, ... que tengan relación con las actividades subvencionadas.

c) Se garantizará el cumplimiento de la normativa sobre normalización del uso del euskera vigente en cada momento.

d) Se facilitará el acceso de representantes municipales a las actividades organizadas dentro del programa subvencionado.

**ZAZPI.- AZPIKONTRATAZIOA.-** Onuradunak jarduera osoa edo zati bat azpikontrata dezake.

Beste batekin hitzartutako jarduerak diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20a baino handiagoa denean eta zenbateko hori 60.000 euro baino handiagoa denean, erakunde onuradunak kontratu idatzia sinatu beharko du hornitzaile horrekin; kontratu hori formalizatzeko, Udalak baimena eman beharko du alde zuzenetik.

Diruz lagundutako jarduerok osorik edo zati batean gauzatzeko, ezingo da inolaz ere itunik egin Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako debekuetako baten barruan dauden pertsonekin edo erakundeekin, diru-laguntzaren jasotzailearekin lotura duten pertsonekin edo erakundeekin (Lege horretako Arautegiaren 68.2 artikuluan dago zehaztuta zeintzuk diren loturak) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 29.7 artikuluan adierazitako gainerako pertsonekin.

**ZORTZI.- JUSTIFIKAZIO KONTUA.-** HARROBIA elkarteak hitzarmen honen bidez diruz lagundutako jardueren justifikazio-kontua aurkeztu beharko du 2026ko apirilaren 30a baino lehen.

Agiri hauek osatuko dute justifikazio-kontua:

a) Diru-laguntza emateko baldintzak bete direla frogatzen duen memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

b) Diruz lagundutako programaren gastuen eta diru-sarreraren balantzea, II. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

c) Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua. Gastu bakoitzerako hauek zehaztuko dira: hartzekodunaren izena, dokumentuaren zenbakia, zenbatekoa, dokumentuaren data eta, egoki denean, ordainketaren data, III. Eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

d) **Faktura originalak** edo balio bereko ziurtagiriak, Hitzarmen honetako

Gastuen justifikazioa jasotzen duten agirietan, datu hauek sartuko dira, nahitaez:

- Onuradunaren identifikazioa.
- Gastuaren xedearen deskribzioa; xede horrek zuzeneko lotura izan beharko du programaren betearazpenarekin.

**SÉPTIMA. - SUBCONTRATACIÓN.** - El beneficiario podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad.

Cuando las actividades concertadas con un tercero excedan del 20% del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000€, la entidad beneficiaria deberá suscribir un contrato por escrito con ese proveedor, cuya formalización precisará de la autorización previa del Ayuntamiento.

En ningún caso podrá concertarse la ejecución total o parcial de las actividades subvencionadas con personas o entidades incursas en alguna de las prohibiciones del art. 13 de la Ley General de Subvenciones, ni con personas o entidades vinculadas con el beneficiario (considerándose que existe vinculación en los casos recogidos en el art. 68.2 del Reglamento de dicha Ley), ni con las demás personas previstas en el artículo 29.7 de la Ley General de Subvenciones.

**OCTAVA. - CUENTA JUSTIFICATIVA.** - La Asociación HARROBIA deberá presentar antes del 30 de abril de 2026 la cuenta justificativa de la subvención recibida.

La cuenta justificativa contendrá la siguiente información:

a) Una memoria de actuación justificativa del cumplimiento de las condiciones impuestas en la concesión de la subvención, con los indicadores exigidos en la cláusula séptima.

b) Un balance de gastos e ingresos del programa subvencionado, conforme al modelo establecido en el Anexo II.

c) Una relación clasificada de los gastos de la actividad, con identificación del acreedor y del documento, su importe, fecha de emisión y, en su caso, fecha de pago, conforme al modelo establecido en el Anexo III.

d) Las **facturas originales** o documentos de valor probatorio equivalente

Los documentos que soporten la justificación de los gastos incluirán, en todo caso, los siguientes datos:

- La identificación de la persona beneficiaria.
- La descripción del objeto del gasto, que deberá estar directamente relacionado con la ejecución del programa.

e) Diruz lagundutako zabalkunde-materiala, Bilboko Udalaren logotipoarekin.

f) Diruz lagun daitekeen kontzeptu baten zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuen Legean kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak baino handiagoa denean eskatu behar diren hiru aurrekontuak eta egindako aukeraren justifikazioa, proposamen ekonomikorik merkeena aukeratu ez denean.

g) Erabili gabeko dirurik geratu bada, soberakin horiek eta horien interesak itzultzeko ordainketa-gutuna.

Diru-laguntza justifikatzeko, erakunde onuradunak II. eta III. Eranskinak paperean eta euskarri digitalean aurkeztuko ditu.

Bilboko Udalak egiaztatuko ditu fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio berea daukaten agiriak edo eraginkortasun administratiboa daukaten egiaztagiria eta, egoki denean, ordainketa egin izanaren egiaztagiria eskatu ahal izango ditu.

Gastuen zerrendan gastu guztiak adieraziko dira eta erakunde onuradunak jatorrizko fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balio berea daukaten agiriak edo eraginkortasun administratiboa daukaten egiaztagiria aurkeztu beharko ditu. Agiri horiek lehen klausulan programa betetzeko ezarritako gutxieneko aurrekontua osatu beharko dute.

#### **BEDERATZI.- PROGRAMA ALDATZEA.-**

Programan edozein aldaketa garrantzitsu eginez gero, aldeztu aurretik Bilboko Udalari eskatu beharko zaio idatziz, eta hark onartu beharko du baimena beren beregi.

Aldaketa garrantzitsu bat egiteko eskabideak arazoitu egin beharko dira, eta aurrekontuko eta kronogramako ondorioak zehaztu beharko dira. Gobernu Batzordeak sail egokiaren ordezkariari eskuordetuko dio aldaketa horiek baimentzea.

Horretarako, hauek joko dira aldaketa garrantzitsutzat:

- Helburu orokorretan edo/eta zehatzetan aldaketak egitea.
- Onartutako aurrekontuetako zenbatekoak % 20 baino gehiago aldatzea (partiden arteko aurrekontu-aldaketek ezin izango

e) Material de difusión del programa subvencionado en el que figure el logotipo del Ayuntamiento de Bilbao.

f) Los tres presupuestos que deben haberse solicitado cuando el importe de un concepto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley de Contratos del Sector Público para el contrato menor, así como la justificación de la elección efectuada, cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) En su caso, carta de pago de reintegro en el supuesto de remanentes no aplicados, así como de los intereses derivados de los mismos.

Para justificar la subvención la entidad beneficiaria entregará los Anexos II y III tanto en papel como en soporte digital.

El Ayuntamiento de Bilbao comprobará las facturas o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa y, en su caso, podrá exigir la documentación acreditativa del pago.

La relación de los gastos incluirá la totalidad de los mismos, debiéndose aportar por la entidad beneficiaria facturas originales o documentos de valor probatorio equivalente en el tráfico jurídico mercantil o con eficacia administrativa que alcancen el presupuesto mínimo de ejecución del programa que se establece en la cláusula primera.

#### **NOVENA. - MODIFICACIÓN DEL PROGRAMA. -**

Cualquier modificación sustancial del programa habrá de ser solicitada con carácter previo a su realización por escrito al Ayuntamiento de Bilbao, quien deberá expresamente autorizarla.

Las solicitudes de modificación sustancial han de ser motivadas, especificando las repercusiones presupuestarias y del cronograma que implican. La Junta de Gobierno delega en la delegación del Área correspondiente la autorización de estas modificaciones.

A tal efecto se consideran modificaciones sustanciales las siguientes:

- Cambios en los objetivos generales y/o específicos.
- Variaciones superiores al 20% en los importes de las partidas del presupuesto aprobadas (las variaciones presupuestarias entre partidas no podrán afectar a los costes indirectos), que no

dute zeharkako kostuetan eraginik eduki), ez badute programaren aurrekontu osoa gutxitzen.

Aldaketak programaren aurrekontua gutxitzen badu, Gobernu Batzordeak onartu beharko du.

Diru-laguntzaren izaera edo helburuak funtsean aldatzen ez dituen beste edozein aldaketa justifikazioa egiten denean onar daiteke, beste batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

**HAMAR.- DESEGITEA.-** Hitzarmen hau desegiteko arrazoi izango dira:

- Erakundeak ez betetzea hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak.
- Harrobia elkarrearen jarduerak arautzen dituzten zuzenbide publikoko arauetan ezarritako betebeharrak ez betetzea.

**HAMAIIKA.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA.-**

Erakunde onuradunak diru-laguntzaren zati bat edo kopuru osoa itzuli beharko du Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako kasuetan.

**HAMABI.-GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK.-**

Erakunde onuradunak, diruz lagundutako programa gauzatzean, NBEk onartutako eta 2023-2033 Kultura Plan Estrategikoan jasotako Garapen Jasangarrirako Helburuetan aurreikusitako jasangarritasun ekonomikoaren, baliabide materialen eta ingurumenaren ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa hartzen du.

**HAMAHIRU.- ARAUBIDEA.-** Hitzarmena haren baldintzen arabera erregulatuko da lehendabizi. Horrez gain, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikuluen eta hurrengoaren arabera eta toki-mailan aplikagarriak diren eta hitzarmenak erregulatzeko diren estatu zein autonomia-mailako bestelako xedapenen arabera ere erregulatuko da.

impliquen minoración del presupuesto total del programa.

Si la modificación implica una minoración del presupuesto del programa, deberá aprobarse por la Junta de Gobierno.

Cualquier otra modificación que no altere esencialmente la naturaleza u objetivos de la subvención podrá ser aceptada en el momento de la justificación, siempre y cuando tal aceptación no suponga dañar derechos de terceros.

**DÉCIMA. - RESOLUCIÓN.** - Constituyen causa de resolución del convenio:

- El incumplimiento por la Asociación de las obligaciones establecidas con carácter preceptivo en el presente convenio.
- El incumplimiento de las obligaciones establecidas en las normas de derecho público que regulan las actividades de HARROBIA.

**UNDÉCIMA. - REINTEGRO DE LA SUBVENCIÓN.** - La entidad beneficiaria estará obligada a reintegrar total o parcialmente la subvención en los supuestos previstos en la Ley 38/2003, de 17 noviembre, General de Subvenciones.

**DUODECIMA. - OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE.** - La entidad beneficiaria se compromete a que, en la ejecución del programa subvencionado tendrá presente la perspectiva de sostenibilidad económica, de recursos materiales y ambiental prevista en los objetivos de Desarrollo Sostenible aprobados por la ONU y contemplados en el Plan Estratégico de Cultura 2023-2033.

**DECIMOTERCERA. - NORMATIVA Y FUERO.** - El convenio se regirá en primer lugar por las cláusulas contenidas en el mismo y además por los art. 47 y ss. de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, y por cualesquiera otras disposiciones estatales o autonómicas reguladoras de los convenios aplicables al ámbito local.

Hitzarmen honen sinatzaileek izango duten eskudun jurisdikzioa administrazioarekiko auzien jurisdikzioa izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 29. artikulua arabera.

Ados daudela agertzeko, alde bietan hitzarmen honen ale bi sinatu dituzte, Bilbon, 2026ko an.

**PRESIDENTE DE LA ASOCIACIÓN HARROBIA/  
HARROBIA ELKARTEAREN PRESIDENTEA**

Sinatua/Firmado:  
Dña. Agurtzane Intxaurreaga Etxebarria

La jurisdicción competente a la que se someten las partes firmantes de este convenio es la Contencioso-Administrativa, a tenor del art. 29 de la ley 29/1998, de 13 de julio, de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman el presente Convenio, por duplicado, en Bilbao a de 2026.

**CONCEJAL DELEGADO DEL AREA DE CULTURA Y  
GOBERNANZA/KULTURA ETA GOBERNANTZA SAILAREN  
ZINEGOTZI ORDEZKARIA**

Sinatua/Firmado:  
D. Gonzalo Olabarría Villota